



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, MAÑUETAKO UDALAREN 2001-EKO FISKALIZAZIOARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Batzar Nagusien Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta Mañuetako Udalaren 2001eko urtealdiari dagokion fiskalizazio txostena hezurmamitu du.

Fiskalizazio txostenak legezko alderdiak aztertzen ditu, aurrekontu, langileria, obren kontratazio, ondasun eta zerbitzu, dirulaguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegiari dagozkionak. Halaber, udal kontuen arrazoizkotasuna eta udalaren azterketa finantzarioa ere egiten da.

Guzti horrekin batera, kudeaketa hobetzeko egoki diren gomendioak egin eta legehauste izan gabe, zuzendu beharrekoak diren hutsak azaleratzen dira.

Indarreko arautegia betetzeari dagokionez, Udalak zuzentasunez bete duela ondorioztatu da, txostenean jasotako ekintza jakin batzuk salbuetsita.

Langileen alorrean HKEEk azaleratu du pertsona batek udaltzain lanak betetzen dituela inolako kontratu harremanik gauzatu gabe, Gizarte Segurantzaz horren izenean kotizatu gabe eta NUIZ atxikipenik egin gabe. Egoera hau zuzentzeko 2001eko abenduan Osokoak plaza hori sortzea oniritzi zuela adierazi da, baina gerora baliogabetu egin zen deialdia, horretarako justifikaziorik batere izan gabe.

Sarreraren atalean legehauste modura jaso da 30.000 euroko zenbatekoarekin mahats salmenta egitea derrigorrezkoa den enkantea bideratu gabe.

Ondasun, obra eta zerbitzuen kontratazioan ere legehausteak barne hartu dira. 29.000 euroko bi kontratutan ez da espedienterik gauzatu, ezta derrigorrezkoa den lehiaketa bideratu ere. 533.000 euroko beste bi kontratu esleitu dira behar hainbateko finantzaketarik izan gabe.

Udal kontuei dagokienez, erakunde fiskalizatzaileak azpimarratu du ez dagoela baloratutako ondasun zerrendarik eta 2001eko urtealdiari dagokion uraren errolda egin gabe dagoela.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEEk egindako finantzaren analisisia 1999, 2000 eta 2001eko urtealdien zifra nagusien bilakaera alderatzea izan da; baita, azken urtealdi honi dagozkionak Arabako udalen eta mila biztanletik behera dituzten EAeko udalerrri guztien batez bestekoekin alderatzea ere.

Azterketa honetatik azpimarratzekoa da udal honek tasa eta zergen kontzeptuan eskuratzen dituen sarrerak antzeko biztanleria duten Arabako udalenak baino txikiagoak direla. Gauza bera gertatzen da transferentzia eta dirulaguntza arruntekin, ez ordea, ondare sarrerekin, udal landa-finka bat ustiatzearen ondorioz handiagoak baitira.

Funtzionamendu gastua ere tamaina bereko udalen batez bestekoa baino txikiagoa da, baina aldiz, gastu handiagoa izan da ondasun erosketa eta zerbitzuetan, jarduera soziokulturaletara emandakoen ondorioz.